



Parte hartu!

Aniztasuna

2014/03/12 | 💬 5

Hainbat jatorritako 300 gaztek zuhaitzak landatuko dituzte larunbatean, elkarbizitza saio batean

Donostiako Puioko zelaietan zuhaitz landaketa berezia egingo dute datorren larunbatean, **martxoaren 15an, 10:00etatik eta 12:00etatik aurrera**. **Gazteak elkarrekin bizitzen ikasten** programaren barruan antolatutako ekimena da, eta bertan lurraldeko **300 gaztek parte hartzea espero dute**.



Zuhaitz landaketa, dena den, irekia da, eta edozein herritar har dezake parte, helburua baita jatorri eta kultura desberdinetako gazteak elkartzea eta aisialdirako gune bat sortzea, **“hemengo eta kanpotik etorritako pertsonen arteko harremanak eta elkarbizitza sustatzeko”**. Haritzalde eta Kaebnai elkarteek antolatu dute ekimena, hirugarren urtez, Club Vasco de Camping Elkartearen laguntzarekin. Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ekimena babestu dute.

Axier Jaka Ingurumen zinegotziak aurreratu du **aurten 175 zuhaitz inguru landatuko dituztela**: **“Zuhaitzaren Egunak duen garrantzia nabarmendu nahi dut, izan ere, herritarrak naturara gerturatzeko eta hirian landaketak egiteko aukera paregabea da, eta kasu honetan gainera gazteei zuzenduta dago**. Puioko magalean bertako basoko zuhaitz eta zuhaixkekin egingo dute landaketa, lizarrak, intsusak eta astigar arruntekin, azken urteotan malda horretan egiten ari den landaketari jarraiki, bertan baso zabal bat eratzeko”.

Haritzalde elkartea egiten ari den lana eskertu eta txalotu du zinegotziak, izan ere, urteotan landatutako

zuhaitzen jarraipena egiten ari da elkarte ekologista, baita bioaniztasunaren eta ingurumenaren babesaren aldeko bestelako jarduerak ere.

Marco Sierra elkarteko ordezkariak programa horren garrantziaz mintzatu da: “Azken hamar urteotan 2.222 zuhaitz landatu ditugu malda horretan, eta horien jarraipena egiten ari gara; abenduan, esaterako, **913 zuhaitz eta zuhaixka markatu eta neurtu genituen eta pozgarria da ikustea nola duela hamar urte landatutako zuhaitzak handitzen eta sendotzen ari diren**”. Maldan aurkitutako espezieen artean daude zumarrak, lizarrak, urkiak, gereziandoak, intxusak, urritzak, astigar txikiak, haltzak, haritzak eta zuhandorrak.

Elkarbizitzarako kimuak

Naiara Sampedro, Kultur Aniztasuneko zinegotziak, berriz, **zuhaitz landaketa aitzakia hartuta egun horretan elkarbizitzarako kimuak ere landatuko direla nabarmendu du**: “Jatorri eta kultura ezberdinetako gazteak elkartuko dira eta ekimen hau oso lagungarria izango da beraien arteko harremanak sustatzeko, elkar ezagutzeko eta elkar aberasteko, eta, ondorioz, estereotipoak hausteko”.

Programa horren helburua berdintasuna eta elkarrekiko errespetua eta aitortzea sustatzea dela nabarmendu du Sampedrok: “Horrelako ekimenak ezinbestekoak dira gizartean gogoeta eragiteko eta egunerokoan konturatu gaituzen aniztasunak aberastu egiten gaituela, **gauza asko dauzkagula elkarri erakusteko eta elkarrekin ikasteko**”.

Aritz Azkona eta Eider Sainz Kaebnai elkarteko ordezkariak azaldu dute programa horren bidez gazteak balioetan hezteara ere lortu nahi dela: “**Gizarteari kanpotik etorritako gazteen beste irudi bat eman nahi diogu, irudi positiboa eta aberasgarria, eta zentzu horretan, gizarte bazterketa saihestu nahi dugu**”.

Kaebnai irabazi asmorik gabeko entitatea da, eta elkarteko boluntarioak izango dira jarduera hau gidatuko dutenak; **Peru, Aljeria, Bolivia, Maroko, Ekuador eta beste hainbat herrialde desberdinetakoak**. Landaketaren ostean bazkari bat egingo dute topaketan parte hartzen duten guztientzat, Aieteko ikastetxean.

Kaebnaik Gipuzkoako 160 elkarte, eta aisialdiko, gazte informatzaileetako, harrerako etxebizitzetako eta abarretako beste hainbeste talde gonbidatu ditu datorren larunbatean izango den ekimenarekin bat egin dezaten, eta lortu nahi dena da, hezitzaile batzuen laguntzarekin, **kanpotik etorritako gazteak gizarteratzen laguntzea**.

Kaebnaiko ordezkarien hitzetan larunbateko hitzordua aukera bikaina izango da beste kultura batzuk ezagutzeko: “Herritar guztiei eta, batez ere, gazteei dei egin nahi diegu, ekimen honetan parte hartzera animatu daitezen, **kultura mota asko ezagutuko dituzte eta, eta hizkuntza eta kultura askoren gaineko ikuspegi dibertigarria, atsegina eta ona emango die parte hartzen dutenei**. Izan ere, besteak beste euskarazko, gaztelaniazko edota arabierazko hitzak txertatu eta erabiliko dira!”.

Beraien ustez funtsezkoa da **elkarbizitza ohiturak irakastea, bereizketa eta bazterketa dinamikak alde batera uztea eta, era berean, kanpotik etorritako gazteak bazterketara eraman ditzaketen jokabide auto-suntsitzaile eta pasiboetatik babestea**.

Harpidetu



Lotutako albisteak:

[Denok gara berdin, eta desberdin](#)

[Kultur aniztasuna sustatzeko elkarteen sare bat eratzeko lehen urratsak egin ditu Udalak](#)

[Udalak kultur aniztasuna sustatzeko irabazi asmorik gabeko erakundeen proiektuak diruz lagunduko ditu](#)

[Haur eta gazteei buruzko diagnostiko bat egitea aurreikusi du Udalak](#)

[#niredanberrada, GAUREn argazki lehiaketa](#)

eguna, landaketa, zuhaitz

< Auzotarren ekimen sozio-kulturalak garatzeko gune baten beharra nabarmendu dute Bidebietan

Hiriko mugikortasunari buruzko saio teknikoa egingo dute bihar >

Profila

Sartu Twitter kontuarekin Sartu Facebook kontuarekin

edo

Izena

E-posta Ez publikatua

Webgunea

BIDALI MEZUA

5 erantzun

0 Comments

5 Tweets

0 Facebook

0 Pingbacks

Duela 4 egun da azken erantzuna



[@DonostiaGaur](#)

Ikusi Duela 5 egun

Hainbat jatorritako 300 gaztek zuhaitzak landatuko dituzte larunbatean, elkarbizitza saio batean

<http://t.co/ryRiS7FFio>

ERANTZUN



[@DonostiakoUdala](#)

Ikusi Duela 5 egun

[Gaur] Hainbat jatorritako 300 gaztek zuhaitzak landatuko dituzte larunbatean, elkarbizitza saio

batean <http://t.co/CoENZBBpD3>

ERANTZUN



[@GazteKontseilua](#)

Ikusi Duela 4 egun

“Hainbat jatorritako 300 gaztek zuhaitzak landatuko dituzte Donostian, elkarbizitza saio batean”

<http://t.co/m096fV107J> @DonostiaGaztea



ERANTZUN

[@NAIARASAMPEDRO](#)



Ikusi Duela 4 egun

Hainbat jatorritako 300 gaztek zuhaitzak landatuko dituzte larunbatean, elkarbizitza saio batean!

<http://t.co/zsvj3xCJtl>

ERANTZUN

Ezibestekoak

Mar
18
Ar.


9:00 Euskadiko Bizitegi Bazterketari buruzko I. Jardunaldia

19:00 'Auzo eta Herriak Donostia Indartzen' prozesuko bilera irekia Loiolan

19:00 'Los productos tóxicos bancario-financieros. Situación actual y resoluciones judiciales'. Hitzaldia

19:00 Solasaldi soziolinguistikoak, Joxe Manuel Odriozola

20:00 Donostiako Musika Eskolaren Big Banda. 49. Heineken Jazzaldia: Tokiko Taldeen Hautaketa



Mapako datuak: ©2014 Google. Eman mapako errore baten berria

Plaza



San Sebastian Eguna ospatzen, Argentinan 2014/03/03

Argentinako Necocheako Euzko Etxean ere ospatu dute San Sebastian Eguna. Bertatik helarazi dizkigute honako argazkiak. En Argentina también celebran el Día de San Sebastián. Nos [Gehiago](#) »


Lanak bukatu, Loiola existe 2014/03/03

La AAVV del barrio de Loiola quiere comunicar a la ciudadanía que en las próximas fechas se van a iniciar una serie de movilizaciones [Gehiago](#) »



**Herri
Partaidetza
Saila**
Donostiako Udala

Joko Garbia



Hemen da konposta!



Objektu galduak

Objektuak katalogoa

Hemen erakusten dira Udaltzaingoa jaso diren azkenengo objektu esanguratsuenak. Pentsatzen baduzu hautakotzen bat zurea izan dabilenla Inspektoria joan zaitezke **Easo 41 kaleran**



Dokumentazioa



Aterkiak



Audio-Bideoa



Audio-bideoa



Auto



Bikeak



Dokumentazioa



Ehuna
Ehuna



Gizak



Osagarriak



Poltzak - Noletak



Telefonak

Gaiak

Donostia 2016

Multimedia Saila

Oharren harpidetza

TAO

Trafikoa

Turismoa

Fermin Muguruza eta Mala Rodriguez, besteak beste, Esne Beltzarekin batera ariko dira Kursaaletan
2014/03/17

Amara Berri, Bidebieta, Aiete eta Erriberetako auzotarrak bilduko dira aste honetan Udalarekin
2014/03/10

Hainbat jatorritako 300 gaztek zuhaitzak landatuko dituzte larunbatean, elkarbizitza saio batean
2014/03/12

Kanabis Elkarte Sozialak arautzeko ordenantza aitzindaria onartuko du Udal Gobernuak ostiralean
2014/03/11

Apirilaren 30a arte egongo da irekia udako jaietarako kartelak aurkezteko epea
2014/03/17

Donostiari buruz

Yoko Ono: «¡San Sebastian! Nunca te olvidaré...» – Diario Vasco 2014-03-16

Yoko Ono: «¡San Sebastian! Nunca te olvidaré...»Diario VascoPor lo »

Bera Bera, Kopako txapelduna 2014-03-16

Donostiarrek 26 eta 21 irabazi dute Rocasa Ace taldearen »

Yoko Ono: «¡San Sebastian! Nunca te olvidaré...» 2014-03-16

Por lo que parece, los amigos de Yoko Ono »

Los legendarios The Stranglers actuarán en abril en Donostia – Noticias de Gipuzkoa 2014-03-16

DeiaLos legendarios The Stranglers actuarán en abril en DonostiaNoticias »

Viaje interior y exterior a la Donostia de los años 50 y 60 – Noticias de Gipuzkoa 2014-03-16

Noticias de GipuzkoaViaje interior y exterior a la Donostia »

Los legendarios The Stranglers actuarán en abril en Donostia – Noticias de Gipuzkoa 2014-03-16

DeiaLos legendarios The Stranglers actuarán en abril en DonostiaNoticias »

Viaje interior y exterior a la Donostia de los años 50 y 60 – Noticias de Gipuzkoa 2014-03-16

Noticias de GipuzkoaViaje interior y exterior a la Donostia »

The Stranglers celebrará su 40 aniversario en Donostia en abril 2014-03-16

Con anterioridad a la cita donostiarra, la banda actuará »

Odón Elorza reclama «más ayuda» al Topic y critica al gobierno local por su ... – Diario Vasco 2014-03-15

Odón Elorza reclama «más ayuda» al Topic y critica »

Jonathan Gold | L.A. restaurant review: Scratch Bar is comic relief 2014-03-14

As much as gastronomists cherish their visits to the »

Concierto de Atzokoak Abesbatza en Donostia – Diario Vasco 2014-03-14

Concierto de Atzokoak Abesbatza en DonostiaDiario VascoAtzokoak Abesbatza lleva »

Orange invierte 3,5 millones en Donostia – Noticias de Gipuzkoa 2014-03-14

Noticias de GipuzkoaOrange invierte 3,5 millones en DonostiaNoticias de »

El bidegorri que conectará Lasarte-Oria con Donostia estará listo en abril de 2015 – Noticias de Gipuzkoa 2014-03-14

Noticias de GipuzkoaEl bidegorri que conectará Lasarte-Oria con Donostia »

Bulego birtuala

Administrazio kontratazioa
Erregistro telematikoa
Herritarren txartela
On-line ordainketak
Tramiteak
Udalaren lan eskaintza
Udalinfo: Herritarren Arreta
Zerbitzuak

Udala

Administrazio egitura
Hiriko gobernua
Udal administrazioa
Udal batzarrak
Udal gardentasuna
Udal korporazioa

Hiria

1813-2013
Auzoak
Berdintasuna
Ekonomia eta enplegua
Etxegintza - Etxebizitza
Euskara
Festak
Gizarte zerbitzuak
Herritarren partaidetza
Hiri hezitzailea
Hirigintza



Hiritarren segurtasuna
Ingurumena
Kirola
Kultura
Mugikortasuna
Osasun publikoa
Parkeak eta lorategiak
Polloe
Trafiko eta garraioa
Udal webguneak

Turismoa

Donostia Turismoa
Erreserba zentrala
Hondartzak
Multimedia saila
Ostatuak
Udal aterpetxeak

Donostiako Udala | Lege oharra

